



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

2021EKO APIRILAREN 28AN UDALBATZA PLENOAK EGINDAKO OHIKO BILKURAKO AKTA

27. BILKURA

Azkoitia Hiri Prestu eta Leialeko udaletxean, bi mila eta hogeita bateko apirilaren 28an, arratsaldeko zazpitan elkartu da Udalbatza Osoa, lehenengo deialdian. Ohiko bilkura honetarako deialdia behar bezala egin da eta eguneko aztergai zerrendan jarri diren gaiak aztertu eta ebatzi dira.

Javier Zubizarreta Zubizarreta Alkate jauna (EAJ-PNV) izan da batzarburua, honako zinegotziak bertaratu direlarik:

Ana Azkoitia Urteaga A. (EAJ-PNV).
Imanol Arrizabalaga Larrañaga J. (EAJ-PNV).
Marijose Arregi Etxeberria A. (EAJ-PNV).
Sonia Vazquez Tejerina A. (EAJ-PNV).
Angel Luis Martin Rodriguez J. (EAJ-PNV).
Mertxe Zubillaga Albizu A. (EAJ-PNV).
Juan Bautista Mendizabal Juaristi J. (EAJ-PNV).
Laida Beristain Zubizarreta A. (EH BILDU).
Ainara Goenaga Andueza A. (EH BILDU).
Mikel Zengotita Alberdi J. (EH BILDU).
Angel M^a Etxeberria Ibarguren J. (EH BILDU).
Itziar Joaristi Olariaga A. (EH BILDU).
Ane Miren Peña Larrañaga A. (EH BILDU).
Jose Joakin Etxaniz Peña J. (IRABAZI-AZKOITIA BAI).
Janire Igoa Merino A. (PSE-EE).

Ezin etorria:

Iraitz Otaño Mujika J. (EH BILDU).

Idazkaria: Amaia Gorrotxategi Zubizarreta, Udal Idazkaria.

Alkate jaunak bilkurari hasiera eman dio, honako gai-zerrendaren arabera:

1.- AURREKO BILKURAKO AKTAREN ONESPENA, HALA BADAGOKIO.

2021eko martxoaren 31ko bilkurako aktaren bozketaren emaitza honakoa da:

Bozketaren emaitza honakoa da:



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

Aldeko botoak: Javier Zubizarreta Zubizarreta, Ana Azkoitia Urteaga, Marijose Arregi Etxeberria, Imanol Arrizabalaga Larrañaga, Sonia Vazquez Tejerina, Angel Luis Martin Rodriguez, Mertxe Zubillaga Albizu, Juan Bautistia Mendizabal Juaristi, Ainara Goenaga Andueza, Mikel Zengotita Alberdi, Ane Miren Peña Larrañaga, Laida Beristain Zubizarreta, Itziar Joaristi Olariaga, Angel M^a Etxeberria Ibareguren, Janire Igoa Merino eta Jose Joakin Etxaniz Peña.

Beraz, Udalbatza Osoak 2021eko martxoaren 31n egindako bilkuraren akta onartzea aho batez erabaki du.

2.- 2016KO URRIAREN 5EAN EMANDAKO ENBARGO-EGINBIDEEN INGURUKO EBAZPENAK OFIZIOZ BERRIKUSTEKO ESKAERAK EZESTEIA.

Honako irizpena aurkeztu da:

“RESOLUCIÓN DE LA SOLICITUD DE REVISIÓN DE OFICIO DE LA RESOLUCIÓN DE 5 DE OCTUBRE DE 2016 POR EL CUAL EL AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA DICTO LA DILIGENCIA DE EMBARGO SOBRE LA VIVIENDA SITA EN EL Nº 12 , PLANTA 2ª DE LA CALLE KORREO DE TOLOSA, Y DE LA RESOLUCIÓN DE LA MISMA FECHA POR EL QUE EL AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA DICTO DILIGENCIA DE EMBARGO SOBRE LA PARCELA RESULTANTE Nº 1 DEL PROYECTO DE REPARCELACIÓN DE LA UE 14.2 UGARTE IGARA DE AZKOITIA.

ANTECEDENTES

Con fecha 24 de julio de 2020, D. Miguel Maria Galparsoro Maiza, administrador único de la sociedad Korreo-Berri, S.L., presenta en el Ayuntamiento de Azkoitia solicitud para que se acuerde la iniciación del procedimiento de Revisión de Oficio del acto de fecha 5 de octubre de 2016 por el cual el Ayuntamiento de Azkoitia dictó la Diligencia de Embargo sobre la vivienda sita en el nº 12, planta 2ª de la Calle



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

Korreo de Tolosa, propiedad de Korreo Berri, S.L. publicada en el B.O.G de 3 de noviembre de 2016, revocando el referido acuerdo municipal.

Asimismo, en fecha 24 de agosto de 2020 tiene entrada en el Registro General del Ayuntamiento de Azkoitia, escrito presentado por D. Miguel Maria Galparsoro Maiza, en nombre y representación de la mercantil Korreo Berri, S.L. por el que se solicita la Revisión de Oficio de la Resolución de 5 de Octubre de 2016 por el que el Ayuntamiento de Azkoitia dicta Diligencia de Embargo sobre la Parcela resultante nº 1 del Proyecto de Reparcelación de la U.E. 14.2 Ugarte Igara de Azkoitia, finca Registral 13639 del Registro de la Propiedad de Azpeitia, propiedad de Korreo Berri, S.L., publicada en el B.O.G de 3 de noviembre de 2016.

Dicho recurso se admitió a trámite otorgando el correspondiente trámite de audiencia mediante Decreto de Alcaldía de 30 de octubre de 2020.

D. Miguel Maria Galparsoro Maiza, recibió la notificación de dicho acuerdo con fecha 20 de noviembre, pero que al no haberse notificado el informe jurídico que servía de base al acuerdo de iniciación notificado, tras la solicitud de la mercantil, el Ayuntamiento otorgó un nuevo periodo de alegaciones mediante Decreto de 27 de noviembre de 2020.

La mercantil presentó las correspondientes alegaciones en Correos el 21 de diciembre de 2020.

Mediante Decreto de Alcaldía de 22 de enero de 2021, tras la elaboración de los correspondientes informes por parte del abogado asesor del Ayuntamiento Aitor Gabilondo y de la Secretaria municipal Amaia Gorrotxategi, se acordó entre otros lo siguiente:

PRIMERO: Remitir a la COJUA el expediente correspondiente a la solicitud de Revisión de Oficio de la resolución de 5 de octubre de 2016 por el cual el Ayuntamiento



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

de Azkoitia dictó la Diligencia de Embargo sobre la vivienda sita en el nº 12, planta 2ª de la Calle Korreo de Tolosa, y de la Resolución de la misma fecha por el que el Ayuntamiento de Azkoitia dicta Diligencia de Embargo sobre la Parcela resultante nº 1 del Proyecto de Reparcelación de la U.E. 14.2 Ugarte Igara de Azkoitia.

SEGUNDO: *Remitir a la COJUA la propuesta de resolución mediante la cual se propone la desestimación de las solicitudes de revisión de oficio presentadas por el Sr. Galparsoro, contenida en el informe de la Secretaria (que anexa la correspondiente al abogado asesor del Ayuntamiento) de fecha 28 de octubre de 2020, completado con el informe de 21 de enero de 2021 que responde a las alegaciones presentadas por dicho interesado.*

TERCERO: *Solicitar a la COJUA que emita el dictamen preceptivo correspondiente, en cumplimiento a lo establecido en el art. 3.1.g) de la Ley 9/2004 de 24 de noviembre de la Comisión Jurídico Asesora de Euskadi.*

CUARTO: *Suspender el presente procedimiento de revisión de oficio hasta que se reciba el informe preceptivo de la COJUA.*

Mediante Decreto de Alcaldía de 2 de marzo, el Ayuntamiento acordó la remisión a la COJUA, como documentación complementaria, de los Estatutos de la sociedad Korreo-Berri, S.L.

La COJUA ha emitido el dictamen preceptivo correspondiente y ha concluido lo siguiente:

No procede la revisión de oficio de las Resoluciones de 5 de octubre de 2016 del Ayuntamiento de Azkoitia relacionadas con las diligencias de embargo de los bienes inmuebles propiedad de Korreo Berri, S.L.

FUNDAMENTOS DE DERECHO



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

El procedimiento de revisión de oficio se regula en el art. 106 de la Ley 39/2015 que señala lo siguiente:

1. Las Administraciones Públicas, en cualquier momento, por iniciativa propia o a solicitud de interesado, y previo dictamen favorable del Consejo de Estado u órgano consultivo equivalente de la Comunidad Autónoma, si lo hubiere, declararán de oficio la nulidad de los actos administrativos que hayan puesto fin a la vía administrativa o que no hayan sido recurridos en plazo, en los supuestos previstos en el artículo 47.1.

Según dicho artículo y como recalca la propia COJUA su dictamen es preceptivo y habilitante, en el sentido de que sólo siendo favorable el dictamen de esta Comisión estaría legitimado el ayuntamiento consultante para declarar la nulidad de las disposiciones administrativas objeto de revisión.

Por lo tanto, y de forma clara, siendo el dictamen contrario a dicha declaración de nulidad, en base a los argumentos que en el mismo se señalan, coincidentes la mayoría con los argumentos vertidos en los informes-propuesta remitidos tanto previos como posteriores a las alegaciones presentadas por D. Miguel María Galparsoro Maiza, este Ayuntamiento debe resolver la desestimación de la solicitud de revisión de oficio del Decreto de Alcaldía de 3 de febrero, motivada en los informes obrantes en el expediente y en el Dictamen remitido por la COJUA.

La Secretaria Municipal ha realizado una propuesta de resolución completa, con los argumentos expresados tanto en los informes previos como en los posteriores a las alegaciones para aclarar los argumentos que el Ayuntamiento entiende oportunos para motivar la desestimación de la solicitud.

Dicho informe será remitido junto con la notificación del presente acuerdo al interesado.



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

Según la reiterada interpretación de la COJUA, el órgano competente para la resolución de los expedientes de revisión de oficio de los actos administrativos es el Pleno municipal.

Por todo ello se propone,

PROPUESTA DE ACUERDO:

PRIMERO: Desestimar la solicitud de revisión de oficio de la resolución de 5 de octubre de 2016 por el cual el Ayuntamiento de Azkoitia dictó la diligencia de embargo sobre la vivienda sita en el nº 12 , planta 2ª de la calle Korreo de Tolosa, y de la resolución de la misma fecha por el que el Ayuntamiento de Azkoitia dictó diligencia de embargo sobre la parcela resultante nº 1 del Proyecto de Reparcelación de la UE 14.2 Ugarte Igara de Azkoitia.

SEGUNDO: Notificar el presente acuerdo junto con el informe de la Secretaria Municipal a D. Miguel Maria Galparsoro Maiza y a la propia COJUA.

2021eko apirilaren 22ko Antolakuntza Batzordean aztertu zen gaia eta hau izan zen emaitza:

ALDEKO BOTOAK: Javier Zubizarreta, Ana Azkoitia, Sonia Vázquez, Janire Igoa, Jose Joakin Etxaniz ,Iraitz Otaño, Itziar Joaristi.”

Ana Azkoitia andreak azaldu du gaia.

COJUAREN onspena duela dio, eta ezestea berrestea eskatzen dela. Bide judizialarekin jarraitu dezakeela aipatu du.

Jose Joakin Etxaniz jaunak esan du Udala zorra duenari kobratzen saiatu behar dela, hortaz ados dagoela.

Bozketaren emaitza honakoa da:

Aldeko botoak: Javier Zubizarreta Zubizarreta, Ana Azkoitia Urteaga, Marijose Arregi Etxeberria, Imanol Arrizabalaga



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

Larrañaga, Sonia Vazquez Tejerina, Angel Luis Martin Rodriguez, Mertxe Zubillaga Albizu, Juan Bautistia Mendizabal Juaristi, Ainara Goenaga Andueza, Mikel Zengotita Alberdi, Ane Miren Peña Larrañaga, Laida Beristain Zubizarreta, Itziar Joaristi Olariaga, Angel M^a Etxeberria Iburguren, Janire Igoa Merino eta Jose Joakin Etxaniz Peña.

Beraz, Udalbatza Osoak 2016ko urriaren 5ean emandako enbargo-eginbideen inguruko ebazpenak ofizios berrikusteko eskaerak ezestea aho batez erabaki du.

3.- 2021 EKITALDIKO UDAL LANGILEEN ORDAINSARIEN IGOERAREN ONESPENA.

Honako irizpena aurkeztu da:

“ANTOLAKUNTZA BATZORDE INFORMATIBOAREN IRIZPENA

GAIA: 2021 EKITALDIKO UDAL LANGILEEN ORDAINSARIEN IGOERA

AURREKARIAK

Azkoitiko Udalbatza Plenoak, 2020ko abenduaren 30ean egindako bilkuran, besteak beste, 2021 ekitaldiko udaleko, bere erakunde autonomoetako eta Azkoitia Lantzen, S.A. erakundeko aurrekontuak – bateratua - hasieraz onartu zituen. Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen Aurrekontuak arautzen dituen abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 15. artikulua xedaturikoari jarraiki, jendaurrean jarri zen, bai Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean – 2021eko urtarrilaren 19an 11. zkian – eta baita Udaletxeko iragarki ohoan eta zabalkunde handiena duen egunkarian, hamabost eguneko epean, interesatuek erreklamazio edo iradokizunak aurkeztu ahal izateko.

Informazio publikoko epean alegaziorik aurkeztu ez zenez, 2021eko Aurrekontu Orokorra behin betikotzat jo zen eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen 2021eko otsailaren 25ean 37. zkian aurrekontuak kapituluka laburtuta eta baita Udaletxeko iragarki ohoan, web orrian eta udaleko gardentasun atarian ere.

Aipatu espedienteak, besteak beste, Udal Langileen Aurrekontu-plantilla zeukan bere barnean, non 2021eko ekitaldirako aurreikusiriko udaleko pertsonalaren gastua justifikatu baitzen.



Irizpen honen xedea, bai Estatuko eta baita Euskal Autonomia Erkidegoko legediek ordainsarien igoeraren arloan xedaturikoa aintzat harturik, 2021eko ekitaldiko udal langileen ordainsarien igoera ahalbidetzea da.

ZUZENBIDEZKO OINARRIAK

I.- 2021 ekitaldiko Estatuko Aurrekontu Orokorrak onartzen dituen abenduaren 30eko 11/2020 Legearen – BOEn 2020ko abenduaren 31an 341. Zkian argitaratua – 18. Artikuluaren Dos atalak eta ondorengoek, ondokoa xedatzen du sektore publikoko langileen ordainsarien igoeraren inguruan:

“Dos. En el año 2021, las retribuciones del personal al servicio del sector público no podrán experimentar un incremento global superior al 0,9 por ciento respecto a las vigentes a 31 de diciembre de 2020, en términos de homogeneidad para los dos períodos de la comparación, tanto por lo que respecta a efectivos de personal como a la antigüedad del mismo. Los gastos de acción social no podrán incrementarse, en términos globales, respecto a los de 2020. A este respecto, se considera que los gastos en concepto de acción social son beneficios, complementos o mejoras distintos a las contraprestaciones por el trabajo realizado cuya finalidad es satisfacer determinadas necesidades consecuencia de circunstancias personales del citado personal al servicio del sector público.

Tres. En el sector público se podrán realizar aportaciones a planes de pensiones de empleo o contratos de seguro colectivos siempre que no se supere el incremento global fijado en el apartado anterior.

Cuatro. La masa salarial del personal laboral, que podrá incrementarse en el porcentaje máximo previsto en el apartado Dos de este artículo, en términos de homogeneidad para los dos períodos objeto de comparación, está integrada por el conjunto de las retribuciones salariales y extrasalariales devengadas por dicho personal en el año anterior.

Se exceptúan, en todo caso:

- a) Las prestaciones e indemnizaciones de la Seguridad Social.*
- b) Las cotizaciones al sistema de la Seguridad Social a cargo del empleador.*
- c) Las indemnizaciones correspondientes a traslados, suspensiones o despidos.*
- d) Las indemnizaciones o suplidos por gastos que hubiera realizado el trabajador.*

Cinco. 1. Los funcionarios a los que resulta de aplicación el artículo 76 del Texto Refundido de la Ley del Estatuto Básico del Empleado Público, aprobado por Real Decreto Legislativo 5/2015, de 30 de octubre (en adelante, EBEP), e incluidos en el



ámbito de aplicación de la Ley 30/1984, de 2 de agosto, de medidas para la reforma de la Función Pública, en los términos de la disposición final cuarta del EBEP o de las Leyes de Función Pública dictadas en desarrollo de aquel, percibirán, en concepto de sueldo y trienios, en las nóminas ordinarias de enero a diciembre de 2021, las cuantías referidas a doce mensualidades que se recogen a continuación:

Grupo/Subgrupo EBEP	Sueldo (Euros)	Trienios (Euros)
A1	14.572,68	560,88
A2	12.600,72	457,44
B	11.014,68	401,28
C1	9.461,04	346,20
C2	7.874,16	235,68
<i>E (Ley 30/1984) y Agrupaciones Profesionales (EBEP)</i>	7.206,96	177,36

2. Los funcionarios a que se refiere el punto anterior percibirán, en cada una de las pagas extraordinarias de los meses de junio y diciembre en el año 2021, en concepto de sueldo y trienios, los importes que se recogen a continuación:

Grupo/Subgrupo EBEP	Sueldo (Euros)	Trienios (Euros)
A1	749,38	28,85
A2	765,83	27,79
B	793,33	28,92
C1	681,43	24,91
C2	650,20	19,44
<i>E (Ley 30/1984) y Agrupaciones Profesionales (EBEP)</i>	600,58	14,78

Seis. A efectos de lo dispuesto en el apartado anterior, las retribuciones a percibir por los funcionarios públicos que hasta la Ley de Presupuestos Generales del Estado para el año 2007 han venido referenciadas a los grupos de titulación previstos en el artículo 25 de la Ley 30/1984, de 2 de agosto, están referenciadas a los grupos y subgrupos de clasificación profesional establecidos en el artículo 76 y disposición transitoria tercera del EBEP, sin experimentar otras variaciones que las derivadas de esta Ley. Las equivalencias entre ambos sistemas de clasificación son las siguientes:

Grupo A Ley 30/1984: Subgrupo A1 EBEP.

Grupo B Ley 30/1984: Subgrupo A2 EBEP.

Grupo C Ley 30/1984: Subgrupo C1 EBEP.

Grupo D Ley 30/1984: Subgrupo C2 EBEP.



Grupo E Ley 30/1984: Agrupaciones profesionales EBEP.

Siete. Lo dispuesto en los apartados anteriores debe entenderse sin perjuicio de las adecuaciones retributivas que, con carácter singular y excepcional, resulten imprescindibles por el contenido de los puestos de trabajo, por la variación del número de efectivos asignados a cada programa o por el grado de consecución de los objetivos fijados al mismo.

Ocho. Los acuerdos, convenios o pactos que impliquen crecimientos retributivos superiores a los fijados en este artículo deberán experimentar la oportuna adecuación, deviniendo inaplicables las cláusulas que se opongan al mismo.

Nueve. Las referencias a retribuciones contenidas en esta Ley se entienden siempre hechas a retribuciones íntegras.

Diez. Los límites establecidos en este artículo serán de aplicación a las retribuciones de los contratos mercantiles del personal del sector público.

Once. Este artículo tiene carácter básico y se dicta al amparo de los artículos 149.1.13.ª y 156.1 de la Constitución. Además, el apartado Tres se dicta en aplicación de lo dispuesto en el artículo 29 del EBEP.

Hori guztia oinarrizko ordainsariei dagokionean eta **osagarriei** dagokionean berriz, Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen Testu Bateratua onartzen duen urriaren 30eko 5/2015 Errege Dekretu Legegilearen 24. artikulua, horiek Herri Administrazio bakoitzari dagozkion legediek ezarriko dituztela xedatzen du. EAeko kasuan, Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legearen 5.1 g) artikuluan ezarritakoren arabera, Eusko Jaurlaritzari dagokio Euskal Autonomia Erkidegoko zerbitzuko funtzionarioen lansari-araubidea eta gainerako langileen lansari-baldintzak ezartzeko arauak eta jarraibideak urtero ezartzea eta 79. artikulua ezartzen du destino osagarrien mailen zenbatekoak urtero finkatuko direla EAeko Aurrekontu Orokorretan.

II.- Euskal Autonomia Erkidegoko 2021 ekitaldiko Aurrekontu Orokorra onartzeko otsailaren 11ko 1/2021 Legearen – EHAA 2021eko otsailaren 17an 35. Zkian argitaratua - 19. Artikuluak sektore publikoan diharduten langileen ordainsariak ezartzen ditu.

Legearen 19.1 artikulua ondorengo xedatzen du: ***“1.– Sektore publikoko langileen gastuei buruz eman daitezkeen oinarrizko xedapenak eragotzi gabe, 2021. urtean, lan-kontratudunak ez diren Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio orokorreko, organismo autonomoetako, zuzenbide pribatuko ente publikoetako eta sektore publikoko partzuergoetako langileen urteko guztizko ordainsariak ezin izango dute % 0,9tik gorako gehikuntza orokorrik izan 2020ko abenduaren 31n indarrean dauden ordainsarien aldean. Ordainsari horiek, betiere, homogeneotasunaren arabera kalkulatu dira, erkaketaren bi aldietarako, bai***



langileen kopuruari eta antzinasunari dagokienez, bai lanaldi-araubideari dagokionez.”

Legearen 19.5 artikulua xedatzen duenez, **lan-araubidekoak ez diren langileek jaso beharreko oinarrizko lansariak izango direla aurrekontu-ekitaldian zehar indarrean daudenak, Administrazio publikoetako funtzionarioen oinarrizko lansarien araubidea erregulatzen duten araei jarraituz**, eta 19.6 artikulua Aparteko ordainsariak (urtean bi izango dira, bata ekainean eta bestea abenduan) jasoko dira artikulua honen 5. paragrafoak zehaztutako soldataren eta hiru urtekoaren kopuruaren arabera, eta hileko bati dagokion destino-osagarriaren eta berariazko osagarriaren edo baliokidea den kontzeptuaren arabera, betiere, paragrafo hau aplikatu ahal zaien kolektiboaren ordainsari-araubideak dioena kontuan hartuta.

Artikulu horren ondorengo ataletan ondokoa xedatzen dela, nabarmentzekoak ondorengo puntuak:

7.– Ordainsari osagarriek ezingo dute %0,9tik gorako gehikuntza orokorrik izan 2020ko abenduaren 31n indarrean dauden ordainsarien aldean, hargatik eragotzi gabe programa bakoitzari atxikitako langile kopuruaren aldaketaren ondorioz, programari ezarritako helburuen betetze-mailaren ondorioz eta programa aplikatzearen banakako emaitzen ondorioz egin daitezkeen aldaketak.

8.– Behin 2021eko ekitaldirako administrazio publikoetako funtzionarioen oinarrizko ordainsariak zehaztuta, Gobernu Kontseiluak destino-osagarriaren urteko zenbatekoa zehaztuko du, Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legearen 79.1.a artikuluan araututakoaren arabera, bai eta gainerako ordainsari osagarriena ere, aurreko apartatueta aurreikusitako irizpideekin bat etorritik.

9.– Sektore publikoaren zerbitzuko langileen gastuei buruz eman daitezkeen oinarrizko xedapenei kalterik egin gabe, 2021eko urtarrilaren 1ean Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio orokorreko, organismo autonomoetako, zuzenbide pribatuko ente publikoetako, sozietate publikoetako, eta Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoko fundazio eta partzuergoetako **langileen soldata-masak, 2021eko urtarrilaren 1ean, ezin izango du %0,9tik gorako gehikuntzarik izan 2020an ezarritakoaren aldean**, hargatik eragotzi gabe lanpostuaren edukian izandako aldaketetatik, programa bakoitzari esleitutako langile kopuruan izandako aldaketetatik, programari ezarritako helburuen betetze-mailetatik edo lana antolatzeeko sistemen edo sailkapenaren aldaketetatik eratorritako gehikuntzak.

Artikulu honen ondorioetarako, lan-kontratudun langileen soldata-masa esaten denean hau adierazi nahi da: kasuan kasuko langileek 2020an zehar irabazitako soldatapeko ordainsariak geroratuak barne eta soldataz kanpokoak. Hala ere, badira zenbait salbuespen:

Gizarte Segurantzako prestazioak eta kalte-ordainak.

Enplegu-emaileak Gizarte Segurantzako sistemari ordaindu beharreko kotizazioak.

Leku-aldatzei edo kaleratzei dagozkien kalte-ordainak.



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

Langileak egindako gastuengatiko kalte-ordainak.

Gizarte-ekintzako gastuak ezin izango dira handitu, oro har, 2020koekin alderatuta.

...

13.- **Sektore publikoko langileen gastuei buruz eman daitezkeen oinarrizko xedapenei kalterik egin gabe, lehendakariaren, sailburuen, goi-kargudunen eta berdinduen 2021eko ekitaldirako ordainsariak ezingo dute % 0,9tik gorako gehikuntzarik izan, 2020ko abenduaren 31n indarrean dauden ordainsarien aldean, antzinatasuna dela-eta egokitu daitezkeen gehikuntza eragotzi gabe.**

14.- **Sektore publikoko langileen gastuei buruz eman daitezkeen oinarrizko xedapenei kalterik egin gabe, behin-behineko langileen lansariak ezin izango dute % 0,9tik gorako gehikuntzarik izan 2020ko abenduaren 31n indarrean dauden ordainsarien aldean, antzinatasuna dela-eta egokitu dakiekeen gehikuntza eragotzi gabe eta betiere haien ordainsariak erreferentziatuta dauden kategoriari dagokion diru kopuru osoa errespetatuta.**

15.- *Osagarri pertsonalek, osagarri iragankorrek eta zerbitzuagatiko kalte-ordainek arau berariazkoak izango dituzte. Kalte-ordain horiek ez dute %0,9tik gorako gehikuntzarik eduki ahal izango beren banakako zenbatekoetan, 2020ko abenduaren 31n indarrean daudenen aldean, eragotzi gabe sektore publikoaren zerbitzuko langileen gastuei buruz eman daitezkeen oinarrizko xedapenak.*

Otsailaren 11ko 1/2021 Legearen 19. Artikuluaren 8. Atalak xedaturikoarekin bat, behin 2021eko ekitaldirako administrazio publikoetako funtzionarioen oinarrizko ordainsariak zehaztuta, Gobernu Kontseiluak destino-osagarriaren urteko zenbatekoa zehaztu behar du, Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legearen 79.1. a artikuluan xedaturikoaren arabera, baita gainerako ordainsari osagarriena ere.

Hori horrela, Gobernu Kontseiluak 2021eko martxoaren 16ko bilkuran, bestek beste, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio publikoaren langileen ordainsarien 2021. Urteko gehikuntzak onartu zituen. Hori dela-eta, Jaurkitzearen Idazkaritzako eta Legebiltzarrarekiko Harremanetarako Zuzendariak, martxoaren 25ean, 15/201 Ebazpena eman zuen, zeinaren bidez argitara ematen baita Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoko langileen ordainsarien 2021. Urteko gehikuntzak onartzen dituen erabakia – 2021eko apirilaren 8ko EHAA n argitaratua -.

Gobernu Kontseiluak ondokoa erabaki zuen:

“Lehenengoa.– Baimena ematea ezen, 2021eko urtarrilaren 1etik aurrera, % 0,9 igotzeko, oro har, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko, organismo autonomoetako, zuzenbide pribatuko ente publikoetako eta sektore publikoko



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

partzuegoetako langileen urteko ordainsari osoak, lan-kontratudun ez direnenak, eta gehikuntza bera aplikatzea lehendakariaren, sailburuen, goi-kargudunen, berdinduen, behin-behineko langileen eta zuzendaritza-kideen ordainsariei ere.

Bigarrena.– Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioako funtzionario eta estatutupeko langileek **oinarrizko ordainsari** hauek jasoko dituzte:

a) 2021eko urtarriletik abendura bitarteko nomina arruntetan, honako kopuru hauek jasoko dira soldata eta hirurteko gisa, kontuan izanik zenbatekoak hamabi hilekori dagozkiela:

(Estatuak ezarritako taula)

b) 2021eko ekaineko eta abenduko aparteko ordainsari bakoitzean, honako kopuru hauek jasoko dira soldata eta hirurteko kontzeptu gisa:

(Estatuak ezarritako taula)

Hirugarrena.– Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legearen 79.1.a artikularekin bat etorriz, 2021ean, honako hau izango da lanpostu-maila bakoitzari dagokion destino-osagarria, kontuan izanik zenbatekoak hamabi hilekori dagozkiela:

MAILA	Urteko zenbatekoa euroak
30	18.286,56
29	16.254,48
28	14.527,44
27	12.902,04
26	11.378,40
25	9.854,64
24	9.245,04
23	8.584,92
22	7.975,08
21	7.365,96
20	6.858,12
19	6.451,56
18	6.045,24
17	5.689,08
16	5.333,88
15	4.978,32
14	4.623,00
13	4.267,08
12	3.911,88



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

11	3.556,20
10	3.273,84
9	3.038,88
8	2.850,72

...

Bosgarrena.– 2021eko urtarrilaren 1etik aurrera, funtzionarioen gainerako ordainsari osagarriak ere % 0,9 igoko dira, 2020ko abenduaren 31n indarrean zeudenen aldean, hargatik eragotzi gabe programa bakoitzari atxikitako langile kopuruaren aldaketaren ondorioz, programari ezarritako helburuen betetze-mailaren ondorioz eta programa aplikatzearen banakako emaitzen ondorioz egin daitezkeen aldaketak.

Seigarrena.– 2021eko urtarrilaren 1etik aurrera, honako hauek izango dira lehendakariaren, sailburuen, goi-kargudunen eta berdinduen ordainsariak:

...

Zazpigarrena.– 2021eko urtarrilaren 1etik aurrera, behin-behineko langileen ordainsariak % 0,9 igoko dira, 2020ko abenduaren 31n indarrean zeudenen aldean, hargatik eragotzi gabe antzinasunagatik dagokiena.

...

Bederatzigarrena.– 2021eko urtarrilaren 1etik aurrera, % 0,9 igoko dira Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio orokorreko, organismo autonomoetako eta Osakidetza-Euskal osasun zerbitzua zuzenbide pribatuko ente publikoko lan-kontratadunen ordainsariak, 2020ko abenduaren 31n indarrean zeudenen aldean.

Hamargarrena.– 2021eko urtarrilaren 1etik aurrera, Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoko gainerako enteetako lan-araubideko langileen soldata-masa ezin izango da igo % 0,9 baino gehiago, 2020ko abenduaren 31n indarrean zegoenaren aldean.

Aurreko paragrafoan aurreikusitakoa da 2021eko soldata-masak gehienez ere izan dezakeen muga; negoziazio kolektiboaren bidez erabakiko da nola banatu eta aplikatu modu indibidualean.

Hamaikagarrena.– Hala osagarri pertsonalak eta iragankorrak nola zerbitzuengatik ematen diren kalte-ordainak araudi espezifikoen arabera arautuko dira, eta, 2021eko urtarrilaren 1etik aurrera, haien kopuru indibidualak ezingo dira igo % 0,9 baino gehiago; betiere, 2020ko abenduaren 31n indarrean zeudenen aldean.



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

Halaber, ordainsari-kontzeptu batzuk erabaki honetan xedatutakotik salbuetsita geratuko dira, baldin eta haien araubideak, aplikatu behar den araudiari jarraituz, baztertzen badu ordainsari-gehikuntza orokorraren bidez eguneratzea.”

Beraz, Antolakuntza Batzorde Informatzaileak ondoko irizpidearen onspena proposatzen dio Udalbatzari:

IRIZPENA

LEHENA.- Udal langileen %0,9ko igoera onstea, 2020ko abenduaren 31n indarrean zeudenekiko, 2021ko urtarrilaren 1etik atzeraeraginez.

BIGARRENA.- Erabaki honen berri Udal-kontu-hartzaitzari ematea.

2021eko apirilaren 22ko Antolakuntza Batzordean aztertu zen gaia eta hau izan zen emaitza:

ALDEKO BOTOAK: Javier Zubizarreta, Ana Azkoitia, Sonia Vázquez, Janire Igoa, Jose Joakin Etxaniz ,Iraitz Otaño, Itziar Joaristi.”

Ana Azkoitia andreak ordainsarien igoeraren onspena dakartela esan du, % 0,9ko igoera aurreikusten dela.

Jose Joakin Etxaniz jaunak langile eta sindikatuak ados egonda, alde bozkatuko dutela.

Bozketaren emaitza honakoa da:

Aldeko botoak: Javier Zubizarreta Zubizarreta, Ana Azkoitia Urteaga, Marijose Arregi Etxeberria, Imanol Arrizabalaga Larrañaga, Sonia Vazquez Tejerina, Angel Luis Martin Rodriguez, Mertxe Zubillaga Albizu, Juan Bautistia Mendizabal Juaristi, Ainara Goenaga Andueza, Mikel Zengotita Alberdi, Ane Miren Peña Larrañaga, Laida Beristain Zubizarreta, Itziar Joaristi Olariaga, Angel M^a Etxeberria Iburguren, Janire Igoa Merino eta Jose Joakin Etxaniz Peña.

Beraz, Udalbatza Osoak 2021 ekitaldiko udal langileen ordainsarien igoera onartzea aho batez erabaki du.



4.- AZKOITIKO UDALAREN 2020-2022 DIRULAGUNTZEN PLAN ESTRATEGIKOAREN ALDAKETAREN ONESPENA.

Honako irizpena aurkeztu da:

“ANTOLAKUNTZA BATZORDEAREN IRIZPENA

AZKOITIKO UDALAREN DIRU-LAGUNTZEN PLAN ESTRATEGIKOA 2020-2022REN ALDAKETAK

LEHENA.- AURREKARIAK

I.- 2019ko abenduaren 27an Udal bilkura osoak, Azkoitiko Udalaren Diru-laguntzen plan estrategikoa 2020-2022 onartu zuen.

2020-2022 aldian egongo da indarrean, eta izaera programatikoa duen kudeaketa tresna bat da. Ez du indar arautzailerik.

Azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 8.1 artikulua ematen du, diru laguntzak ezartzea proposatzen duten Administrazio publikoak behartuta daudela aldeztuz diru laguntzen plan estrategiko bat egitera.

II.- Agindu hau betez 2020-2022 urtetarako plan bat proposatu eta onartu da.

Garrantzitsua da zehaztea diru-laguntzen plan estrategikoa onartzeak ez dakarrela berekin onuradun izan daitezkeen erakunde eta/edo pertsonen aldeko eskubiderik batere sortzea.

Diru-laguntzen Plan Estrategikoa gida bat da zeinak, aurretik ezarrita dagoen arau-esparruaren barruan, interes orokorreko jarduerak sustatzeko jarraibidea ematen duen.

III.- Egunerokotasunean, ikusten da ezin dela plan estrategiko finko bat eduki. Hots, gaur egun, urtean zehar jasaten diren aldaketak direla eta, gehiago, diru-laguntzen plan estrategikoa behin eta berriz aldatu behar da, bai diru-laguntza lerro berri bat onartzea nahi delako eta baita indarrean dagoena egokitzea nahi delako.

BIGARRENA.- ALDAKETAK

Diru-laguntzen plan estrategikoan, aurreikusitako diru-laguntza lerroetan aldaketak edo egokitzapenak onartzeko eskumena Osoko Bilkurak Alkateari eskuordetzea eta 2020-2022 ekitaldietarako dirulaguntzen Plan Estrategikoaren 3. artikulua aldatzea proposatzen da.



OINARRI JURIDIKOAK ETA EKONOMIKOAK

Lehena.- Diru-laguntzen plan estrategikoa onartzeko eskumena duen organoa

38/2003 Diru-laguntzen Lege Orokorreko 8. artikulua zehazten du Udal korporazioen organoek diru-laguntzak onartu aurretik, plan estrategiko batean aurreikusi behar direla, non, lortu nahi diren helburuak eta ondorioak, epea, kostuak eta finantzaketa iturriak zehaztu behar diren. Baina 38/2003 Lege Orokorra ez du zehazten zein organo izango den eskuduna plan estrategiko hori onartzeko edo aldatzeko eta ezta Lege hau garatzen duen 887/2006 Errege Dekretuak ere.

7/1985 Legeak, Toki-araubidearen oinarriak arautzen dituenak 21.s) artikuluan zehazten du Alkateak eskumena izango duela *“Legeek berariaz aitortzen dizkioten gainerakoak, eta Estatuko legediak edota autonomia-erkidegoetakoak udallerriari esleitutakoak izanik udaleko beste organo batzuei egotzi ez dizkietenak”*. Ondorioz, uler daiteke Alkateak dela organo eskuduna eta horrela ulertu dute Udal batzuek.

Hala ere, orain artean Azkoitiko Udalean ondorioztatu da, organo eskuduna Udalbatzaren Osoko Bilkura dela eta horrela jardun du; izan ere, diru-laguntzen oinarri orokorrak eta espezifikoak Osoko bilkurak onartu behar ditu eta 38/2003 Legeko 17.2 artikulua xedapena jarraituz (*... Las bases reguladoras de las subvenciones de las corporaciones locales se deberán aprobar en el marco de las bases de ejecución del presupuesto, a través de una ordenanza general de subvenciones o mediante una ordenanza específica para las distintas modalidades de subvenciones*) ondorioztatu da Oinarri Orokorra eta espezifikoak onartu dituen organoak onartu behar duela diru-laguntzen plan estrategikoa, alegia, Udaleko Osoko Bilkurak.

Baina, egunerokotasunean, ikusi da diru-laguntzen plan estrategikoa ez dela plan finko bat, alegia, onartutako epealdian aldaketa asko izatea dela normalena, eta zer esanik ez COVID-19 sortu duen pandemia egoera bat egonik.

Beraz, Azkoitiko Udaleko Osoko Bilkurak horrela adostu ezker bere eskumena eskuordetzan eman dezaike Alkateari, horrela ahalbidetzen duelako 7/1985 Legeak, Toki-araubidearen oinarriak arautzen dituenak 22.4) artikuluan.

Eskuordetza horrek honako mugak errespetatu beharko lituzke:

- 2020-2022 urterako Diru-laguntzen plan estrategikoari eragingo dio soilik.

- Nahiz eta Diru-laguntzen Plan Estrategikoa izatera programatikoa izan eta ez duen indar arautzailerik, 2021ko Aurrekontua gauzatzeko Udal Araua errespetatu behar du. Ondorioz, Alkateak 1.373.386,00 eurotik beherako diru kopuruari dagozkion aldaketak soilik onar ditzake. Beraz, aipaturiko kopurua baino handiago den aldaketaren baten eskumena beti izango du osoko bilkurak.



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

- Aldaketak argitaratu egin behar dira guztiak horren berri izan dezan, nahiz eta legeak ezartzen duen jendeaurrean jartzearen izapidea ez den beharrezkoa.

Bigarrena.- Ildo beretik, 40/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoarenak, bere 9. artikuluan, besteak beste, xedatzen da administrazio bereko organoek beste organo batzuei delegatu diezazkietela beren eskumenak.

Prozedurari dagokionez, artikulua bereko 3. atalean zehazten da eskumen-delegatzeak eta errelokazioak Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu behar direla. Gainera, 4. atala jarraituz, ebazpenak delegazioz ematen direnenean, espresuki adierazi behar da hala eman direla, eta organo delegatzaileak emandakotzat joko dira.

Beraz, Antolakuntza batzordeak, 2021ko martxoaren 25ean eginiko bileran honako irizpena proposatzen dio Udal Osoko Bilkurari:

IRIZPENA

LEHENA.- 2020-2022ko Diru-laguntzen Plan Estrategikoaren 3. artikulua, eskumenari dagokiona, aldatzea. Honela idatzita geratuko da:

3. artikulua. Eskumena

Diru-laguntzen Plan Estrategikoa onartzeko eskumena duen organoa Osoko Bilkura da, diru-laguntzen Oinarri Orokorrak eta Espezifikoak onartzearekin lotutako egintza den heinean.

Artículo 3. Competencia.

El órgano competente para la aprobación del Plan Estratégico de Subvenciones, es el Pleno municipal, al ser una actuación ligada a la aprobación de las Bases Generales y Específicas de subvenciones.

BIGARRENA.- 2020-2022ko Diru-laguntzen Plan Estrategikoan aurreikusten diren diru-laguntza lerroen aldaketa edo egokitzapenaren eskumena Bilkura Osoak Alkateari eskuordetzea.

Eskuordetzak honako mugak errespetatu behar ditu:

- 2020-2022 urterako Diru-laguntzen plan estrategikoari eragingo dio.

- 2021. ekitaldian Alkateari 1.373.386,00 eurotik beherako dirulaguntzei dagozkien aldaketak soilik eskuordetzen zaizkio. 2022.ekitaldian aurrekontuaren Udal arauak ezarriko du zein izango den eskuordetzearen kopuruaren muga.



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

- ebazpenak delegazioz ematen direnengan, espresuki adierazi behar da hala eman direla, eta organo delegatzaileak emandakotzat joko dira.

HIRUGARRENA.- 7/1985 Legearen 70.2 artikulua, 2568/1986 azaroaren 28ko Errege Dekretuz onartutako tokiko erakundeen araubide juridikoa, funtzionamendua eta antolakuntza Erreglamentuko 51.2 artikulua eta 40/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoarenak, bere 9.4 artikulua xedapenak jarraituz, behin betiko testua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, Udaletxeko iragarki taulan, Azkoitiko Udalaren web orrian eta Gipuzkoako Atarian argitaratuko da.

Antolakuntza Batzordeak, 2021ko apirilaren 22an egindako bileran, gaia aztertu eta irizpena eman zuen, eta hau izan zen emaitza:

ALDEKO BOTOAK: Javier Zubizarreta, Ana Azkoitia, Sonia Vázquez, Janire Igoa, Jose Joakin Etxaniz, Iraitz Otaño, Itziar Joaristi

Ana Azkoitia andreak azaldu du gaia. Oraingo Plan Estrategikoaren aldaketak egitea tokatzen ari dela esan du, eta prozedura hori arintzeko dakartela ebazpen proposamen hau. Alkateari eskumena ematen zaio aldaketak egiteko, bertan zehaztutako mugen barruan.

Jose Joakin Etxaniz jaunak esan du garai honetan ohikoa baino laguntza lerro gehiago aldatu behar izan direla eta ontzat ematen dutela.

Bozketaren emaitza honakoa da:

Aldeko botoak: Javier Zubizarreta Zubizarreta, Ana Azkoitia Urteaga, Marijose Arregi Etxeberria, Imanol Arrizabalaga Larrañaga, Sonia Vazquez Tejerina, Angel Luis Martin Rodriguez, Mertxe Zubillaga Albizu, Juan Bautistia Mendizabal Juaristi, Ainara Goenaga Andueza, Mikel Zengotita Alberdi, Ane Miren Peña Larrañaga, Laida Beristain Zubizarreta, Itziar Joaristi Olariaga, Angel M^a Etxeberria Ibaguren, Janire Igoa Merino eta Jose Joakin Etxaniz Peña.

Beraz, Udalbatza Osoak 2020-2022 dirulaguntzen Plan Estrategikoaren aldaketa onartzea aho batez erabaki du.



5.- AURREKONTUARI BURUZKO INFORMAZIOA.

Ondoren, aurrekontuari buruzko informazioa era honetan eman da:

	Behin bet. aurr. Pres. def.	Baimendua Autorizado	Erabilia Dispuesto	Onart. oblig. Contraído	Ordainketa Pagado
Oraingo ekitaldia/Ej. corriente GASTUAK	17.201.382,41	6.632.205,20	6.139.985,06	2.658.343,80	2.650.220,05
	Behin bet. aurr. Pres. Def.	Onar. esk. Garb Dchos. Recs..	Bildut-garbia Recaudado	Kobr. Dagoena Pte. cobro	Itzulketak Devoluciones
Oraingo ekitaldia/Ej. Corriente SARRERAK	17.201.382,41	3.510.484,26	2.391.529,04	1.118.955,22	40.116,18

11.- GALDE ERREGUAK.

Ez da galde-erregurik aurkeztu.

Aztertzeko gai gehiago ez dagoenez, Alkate jaunak bilkurari amaiera eman dio, arratsaldeko zazpiak eta hamaika minutu direnean eta nik, Idazkariak, akta hau jaso dut, Agirien Liburura transkribatuko delarik.

ALKATEA

IDAZKARIAK

**Akta honen osagarria izango da, berarekin batera elektronikoki sinatzen den audioa.*



Sinaduren laburpena / Resumen de firmas

Titulua / Título:

2021PLEN0010-Akta/Acta ()